

## » ETaren su-etena

# Gu ere pozik gaude

**KOLDO TELLITU MEJIA**  
IKASTOLEN ELKARTEA-PARTAIDAKO  
LEHENDAKARIA

**P**ozik gaude, oso pozik, ikastoletan ere, eta nor ez, asteazkeneko berriarekin. Erakunde sozial bako kide naizenetik iritzia ematera gonbidatu naute eta, apal-apal, horixe egitera nator, hezkuntza alorrean diharduenaren iritzia ematera, alegia ur ttantta xume bat egunotako iritzien itxaso zabalean.

Egunotan esandakoen artean, lbarretxe lehendakariak berak zioena neure egiten dut, alegia, «gizarteak bake eta normalizazio prozesua berea dela sentitu behar du, ezin du politikoan gauzatar hartu». «Euskal gizarteak eragin-kor hartu behar du parte», zioen lehendakariak martxoaren 23an ETAK egindako sueten iragarpenaren harira aurkeztutako agirian. Ni ere horretan nago. Eta dagokidan neurrian horretara nator lerrookin.

Behin baino sarriago esan izan da euskal gizartearen aktiborik handiena giza banakoan dagoela. Eta giza bana-kor horren barruan gure haurrak, gure ikasleak, altxorrik preziatuena, esango nuke nik guraso bezala eta hezkuntza alorretik zeregin sozialean konprometitu gisara. Gu oraina gara, gure haurrak etorkizuna. Asteazkeneko iragarpenak, momentuaz gozatzeaz batera, etorkizunera begira amets egitea dakarkigu, bat-batean iraganaren zama astuna bizkarretik astindu bagenu bezala.

Iritsiko dira, etorkizun horri begira, edukietaz hitz egiteko egunak, lehenbailehen gainera. Baina une honetan emozioen garaia da oraindik. Emozioen altxoan gozatzeko tartea. Borondate onak eta jarrera irekiak iragartzeko garaia da, bakoitzak bereari heltzeko berezko jarrerak nabarmentzen hasten direnean aurremetatuarekin orekatzeko, besterik ez bada. Jarrera psikologiko kolektiboak oso garrantzitsuak dira. Une honetan ilusioa eta baikortasuna sortu bezala mantendu eta elikatu beharreko garaia dira, gertuko geroan indar bultzatzaile gisa erabiltzeko.

Gatazka mingarriaren aztarnak gure etxeetan bezala daude gure haurrak elkartzen diren eskoletan. Ikastoletan bertan oso ondo ezagutzen ditugu egoera horiek. Beste leku batzuetan bezala, bortizkeriak eramandakoen seme-alabak ditugu gure ikasgeletan, lankideak, langileen familiarteko eta lagunak. Lankide, guraso, ikasle-ohi presoak ditugu, torturatutak, ihes egindakoak. Horiek guztiak daude gure artean. Ezin gaitezke egonean geratu

**Ilusioa eta baikortasuna  
sortu bezala mantendu eta  
elikatu beharreko garaia  
dira, gertuko geroan indar  
bultzatzaile gisa erabiltzeko**

hori guztia aldatzeko aukerak aldaba jotzen duenean.

Pozaren eta itsaropenaren eragile aktibo bihurtu beharra daukagu gizartegintzatik, gure kasuen hezkuntzaren alorretik, zelatan uzkur geratu beharrean espiritu irekiaz, eskuzabal eta eman-kor.

Bestalde, eta hezkuntzako kontzeptuen harira, baloreetan hezi nahi izaten ditugu haurrak gure ikasgeletan. Bakea eta Justizia, biak maiuskulekin, nagusi ditugu baloreen artean, nekez joan baitaitezke bakoitza bere aldetik. Ongi dakigu herri honetan zenbaiteraino eskatzen duen bata bestea, bata bestetik bereizi nahiak gizarte honetara ekarri duen porrota eta sufrikarioa.

Abia bitez baloreok gure haurren ikasgeletatik euskal gizarte zabalera.

Kontzientzia kritikoa hezi nahi izaten ditugu gure haurrak eskolan. Kontzientzia kritikoa garatzea ezinbestekoa da gizabanakoak bere ibilbide propioa egin dezan. Gizabanakoari egotzi nahi zaion ezagutza hori herri eta gizarte eremura eramanda, Unesco erakundeak gizarte emantzipatuak bereizten ditu, nortasun propioaz jabetuta autonomia osoz ibilbide propioa egiteko gaitasuna duten herriak alegia, beste aldean jartzen diuelarik, gizabanako babes beharrekoak, ibilbide propioa egin ezinean besteen eskutik ibili beharrean aurkitzen diren gizarte dependenteak.

Gizartearen ondo integratzeko hezi nahi izaten dirugu gure ikasleak. Gizarte integratuturik gabeko gizarte emantzi-

aturik ez dago. Balio eta egitasmo kolektibo kontsentsuatuak, modu batean edo bestean, behar ditu beti anitza den gizarteak, gizarte emantzipatua izango bada. Badira aniztasunean Euskal Herriko baina nahaspilatuagoak diren gizarteak. Aniztasuna baino gehiago polarizazioak, eta polarizazioaren haritik datozkigun deformazioak ditugu arazo. Hona hemen ikasgelatik gizarte zabalera ateratzeko beste aldagai funtsezko bat.

Hori guztia daukagu eginkizun. Hezkuntzaren alorrek asko dauka emateko XXI. mendeko Euskal Herrira eramango gaituen prozesuan. Eskola, eragile sozial bezala, eta gainerako eragileak, politikoak, sindikalak, zein instituzionalak, konpas berean jarri beharra dago, bakoitzak beretik ekarpena egin dezan.

Hor egongo gara ikastolak. Ohituta gaude helburuak betetzeko behar diren baliabideak iritsi zain geratu barik bila joan eta ibilbide propioa egiten. Euskal gizarteak, Euskal Herriak, bere bide propioa egiteko aukera azaldu denean, kontatu gurekin, aspalditik gabiltza horretan eta.

**Hezkuntzaren alorrek asko  
dauka emateko prozesu  
honetan. Gainerako  
eragileekin konpas berean  
jarri beharra dago**

# Gertaleku berria

**JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA**  
**'TXILLARDEGI'**

IOAZLEA

**M**artxoaren 22a mugarri gertuko da Euskal Herriaren kondairan.

ETAk bere buruz su-eten iraunkorra iragartzea berri ona izan da. Zeren-eta orain dela hilabete asko burututako «ekintzek», arazoak sortzen baitzizkiguten guri; eta Euskal Herriaren esku-bideak ukatzen dituztenei, aldiz, mesedegarri gertatzen.

Gure etsaiek bazeukaten aitzekia: «El Estado de Derecho no puede ceder al chantaje de los violentos».

Amaitu egin da aitzekia hori, ordea; eta hau berri ona izan da; nahiz zenbaiti ETAk egindako urratsa oso arris-kugarri iruditu.

Nolanahi ere zalantzarik ez: gertaleku berri batean sartu gara. Kondaira fase bat amaitu, eta berri batean abiatu gara.

ETAren jokamoldeak desbideratu egiten zuen gure arazo nagusia. Jordi

Sevilla espainiar ministroak joan den 21an adierazi zuen: «Euskal Herriaren arazo bakarra ETA da». Zer esango du orain? Arazorik batere ez dagoela hemendik aurrera?

Baina ETA ez da euskal arazoa. Eta guk baino hobeki dakite.

Euskal arazoa beste hau baita: orain dela bost mende, herri hau zapalduta bizi dela. Eta *vascongado* / *navarro* / *vasco-francés* zatiketa hirukoitzak geure hondamendira garamatzala. Ongi dakite, era berean, hemen hispano-frantses legetasuna gerra bidez inposatu zela behin eta berriz.

Euskal Herriak bizirik iraungo badu. Auto-determinazioa eta Independentzia behar ditugu.

Baina hasiak dira ahots bitxi batzuk entzuten: «*hay que exigir a ETA que se disuelva*, *hay que exigir a ETA que pida perdón a las víctimas*, *hay que exigir a ETA que entregue las armas*, *hay que exigir a ETA...*»

ETAk eman du pausua. Orain besteei dagokie «fitxa mogitza». Zapaterori bereziki.

Bereixijitu behar zaie: euskal pre-

soak hurbiltzeko eta aske uzteko, Batazuna legeztatzeko, eta abar luze bat.

Herri guztiak dute auto-determinatzeko eskubidea. Euskal Herriak ere bai. Demokrazia, horren aitopenean hasten da. Ezin da demokraziarik erai-ki herrien eskubideen ukazioaren gainean.

Hots, Katalunian ikusi dugunak ez digu esperantza handitarako atekarik ireki.

Bartzelonako Parlamentuak prestatutako testua «ezagutu ere ezina aldatu arte» itzuli dute Madriletik.

Estatu plurinazionalik onartzetik urrun dago Madrileko gobernu. Eta

**Estatu plurinazionalik  
onartzetik urrun dago**

**Madrileko gobernu.**

**Honela eta ez bestela uler  
daiteke ERCren ezezkia**

honela eta ez bestela uler daiteke ERCren ezezkia.

Aznarrek inlotsarik gabe eta luzaz elkarraditurik jokatu zuen CiU alderdi erregionalista eskuindarrak. Eta CiUren saldukeriaz baliatu da Madrill Katalunia autonomismoan barrera itozteko.

Era Euskal Herriaren bide bera hartuko du Zapaterok.

Gurean ere CiUren saldukeria bera bere gain hartzeko prest dagoen alderdi erregionalista eskuindarra ez baita falta.

Aste eta hilabete zailak datozkigu. Eta guztiz erne ibili behar dugu.

Egoera berriko arriskuez ongi jabetzen ez bagara, «estatutismo pragmatikotara» lerratuko gara. Eta kitto.

Apirilaren 1eko manifestazioa izan daiteke gure kezken frogaleku egokia. Agian gu ezkorregi agertzen ari lerro hauean. Agian bai!

Baina orangoz uzkur oso.

Azkenean badirudi-ra gure arteko batzuek ere, suetena lorturik, problema konponduta dagoela sinetsi dutela...